


EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA



*Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko
Estatistika Organo Berezia*



1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK

Obra handiko lizentzien kopurua apur bat handitu da Bizkaian, eta bere horretan jarraitu du Gipuzkoan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta; urtetik urterako datuei dagokienez, kopuru horrek behera egin du lurralde historiko guztietan.

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren arabera, 2019ko bigarren hiruhilekoan, obra handiko 871 lizentzia eman zituzten guztira Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) udalek. Emaizta horiek 2019ko lehen hiruhilekoan baino hobeak dira. Izan ere, 25 lizentzia gehiago eman ziren, eta horrek esan nahi du, datu erlatiboak hartuta, % 3,0ko igoera izan dela. Aurreko urteko hiruhileko berarekin konparatuta, jarduerak behera egin du: 77 lizentzia gutxiago onartu dira; beraz, % 8,1eko beherakada izan da.

Bizkaian, hiruhilekoko obra handiko lizentzien % 54,2 eman dira; guztira, 472. Ondoren, Araban, 208 lizentzia eman dira; hau da, lizentzia guztien % 23,9. Gainerako 191 lizentziak, guztien % 21,9, Gipuzkoan eman dira.

EAEko lurralde historikoen artean, Bizkaian soilik handitu da obra handiko lizentzien kopurua, 2019ko lehen hiruhilekoaren eta bigarrenaren artean. Lurralde horretan, kontuan hartutako lizentzien kopuruak % 6,1 egin du gora erreferentzia-aldian (27 lizentzia gehiago). Araban, aldiz, beherakada txikia izan da: aurreko hiruhilekoan baino 2 lizentzia gutxiago eman dira; hau da, % 1,0ko beherakada gertatu da. Gipuzkoan, bestalde, lizentzien kopuruak bere horretan jarraitu du 2019ko lehen hiruhilekoaren eta bigarrenaren artean.

Urte arteko emaitzei dagokienez, negatiboak izan dira lurralde historiko guztietan. Arabako Lurralde Historikoan, 18 lizentziako beherakada absolutua gertatu da 2018ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta; beraz, % 8,0ko beherakada erlatiboa. Gipuzkoan, urte arteko beherakada 12 lizentziakoa izan da, eta epealdiko beherakada erlatiboa, berriz, % 5,9koa. Bizkaian, aldiz, 47 lizentziako beherakada gertatu da kopuru absolutuetan; hortaz, % 9,1eko beherakada izan da aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta.

Emandako lizentzia-moten artean, birgaitzeko obrei lotutakoek nagusi izaten jarraitzen dute.

2019ko bigarren hiruhilekoan, **emandako lizentzia-moten** arabera banaketan, aurreko hiruhilekoetako joera berari eutsi zaio. Argi eta garbi nagusitzen dira birgaitzeko obra handiko lizentziak.

Zehatz-mehatz, erreferentziako hiruhilekoan, birgaitzeko obrei lotutako lizentziak obra handiko lizentzien % 86,4 izan dira (2019ko lehen hiruhilekoko % 83 baino handiagoa); oinplano berriko eraikinetarako, % 12,1 izan dira (2019ko lehen hiruhilekoko % 14,1etik behera), eta eraispenerarako, berriz, % 1,5. Kopuru absolutuak honako hauek dira: 753 birgaitze-lizentzia (2019ko lehen hiruhilekoan baino 51 gehiago, % 7,3ko igoerarekin), oinplano berriko 105 lizentzia (14 lizentzia gutxiago, % 11,8ko beherakadarekin), eta 13 eraispene-lizentzia, aurreko hiruhilekoan baino 12 gutxiago.

2019ko bigarren hiruhilekoan, oinplano berriko lizentziak eta birgaitzekoak modu desberdinean banatzen dira, emandako lizentzien kopuru osoan, aztertutako lurralde historikoaren arabera. Araban, oinplano berriko lizentziek pisu erlatibo handixeagoa dute: emandako obra handiko lizentzia guztien % 15,9, eta Gipuzkoan eta Bizkaian, berriz, % 14,1 eta % 9,5, hurrenez hurren. Birgaitzeko obra handiko lizentziei dagokienez, Bizkaian, birgaitzeko lizentziak emandako lizentzia guztien % 89 dira; Gipuzkoan, aldiz, proportzio hori % 84,8 da, eta Araban, % 82,2.

1. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 2. hiruhilekoa


(Hiruhilekoko balio absolutuak eta ehuneko bertikalak. Aldakuntza absolutua eta portzentajezkoa, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK		2019ko 2. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoarekiko		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko berarekiko	
		Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	871	100,0	25	3,0	-77	-8,1
	Oinplano berria	105	12,1	-14	-11,8	-40	-27,6
	Birgaitzea	753	86,5	51	7,3	-28	-3,6
	Eraispena	13	1,5	-12	-48,0	-9	-40,9
Araba	Guztira	208	100,0	-2	-1,0	-18	-8,0
	Oinplano berria	33	15,9	4	13,8	-4	-10,8
	Birgaitzea	171	82,2	-2	-1,2	-14	-7,6
	Eraispena	4	1,9	-4	-50,0	0	0,0
Bizkaia	Guztira	472	100,0	27	6,1	-47	-9,1
	Oinplano berria	45	9,5	-8	-15,1	-29	-39,2
	Birgaitzea	420	89,0	35	9,1	-19	-4,3
	Eraispena	7	1,5	0	0,0	1	16,7
Gipuzkoa	Guztira	191	100,0	0	0,0	-12	-5,9
	Oinplano berria	27	14,1	-10	-27,0	-7	-20,6
	Birgaitzea	162	84,8	18	12,5	5	3,2
	Eraispena	2	1,0	-8	-80,0	-10	-83,3

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 2. hiruhilekoa

1. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 2. hiruhilekoa

(Balio absolutuak eta Ehuneko bertikalak)



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 2. hiruhilekoa



2019ko lehen hiruhilekotik bigarrenera arteko aldian, oinplano berriko lizentzien kopuruak gora egin du Araban (% 13,8), baina pixka bat txikitu da birgaitzeko obrari dagokionez (–% 1,2). Gipuzkoan eta Bizkaian, aitzitik, oinplano berriko lizentziek jokaera negatiboa izan dute (–% 27 eta –% 15,1, hurrenez hurren), baina ez eraikuntza berrikoek (+% 12,5 eta +% 9,1, hurrenez hurren).

Urtetik urterako bilakaeran, Bizkaiak izan du bilakaerarik txarrena oinplano berriko lizentzietan, mota horretako askoz lizentzia gutxiago eman baititu (–% 39,2). Gipuzkoan eta Araban, kopuru horrek behera egiten badu ere, eragina txikiagoa da (–% 20,6 eta –% 10,8, hurrenez hurren). EAE osoa aintzat hartuta, obra berriko lizentzien kopurua % 27,6 txikitu da; hain zuzen, obra handiko 40 lizentzia gutxiago eman dira 2018ko 2. hiruhilekoan baino.

Halaber, 2018ko 2. hiruhilekotik 2019ko 2. hiruhilekora bitartean, birgaitzeko lizentzien kopuruak behera egin du EAEn (–% 3,6). Beherakada hori Araban eta Bizkaian gertatutako beherakaden ondorioa da (–% 7,6 eta –% 4,3, hurrenez hurren). Gipuzkoan, berriz, lizentzia horien kopurua handitu egin da aipatutako aldian (+% 3,2).

Metatutako urte arteko datuek erakusten dutenez, pixka bat txikitu da EAEn 2019ko bigarren hiruhilekoan emandako lizentzien kopuruan.

Urteko datu metatu horiek 2018ko hirugarren hiruhilekoaren eta 2019ko bigarrenaren artean emandako lizentzia guztiak hartzen dituzte kontuan; aurreko urteetako hiruhileko beretako (2017ko hirugarren hiruhilekotik 2018ko bigarren hiruhilekora) urteko metatuarekin alderatuz gero, ikusten da 16 lizentzia gutxiago eman direla; hau da, alderatutako aurreko epealdian baino % 0,5 gutxiago. Beherakada handiagoa gertatu da oinplano berriko lizentzien kasuan, EAEn % 12,9 txikitu baita haien kopurua (65 lizentzia gutxiago); birgaitzekoen kasuan, aldiz, % 1,7 handitu da kopurua (47 lizentzia gehiago). Eraisteko soilik diren obretarako emandako lizentzien kopurua % 2,8 handitu da; hain zuzen, 2 lizentzia gehiago eman dira.

Oinplano berriko lizentziei dagokienez, 2019ko bigarren hiruhilekoko urteko datu metatuen bilakaera negatiboa izan da Bizkaian zein Gipuzkoan; Araban, berriz, dinamika positiboa izan du. Birgaitzeko obretarako emandako lizentzien kopurua antzera handitu da Araban eta Gipuzkoan.

Urte arteko datu metatuak lurralde historikoaren arabera aztertuta, agerian geratzen da EAEn dinamika desberdinak daudela.

Bizkaian, azken urtean metatutako lizentzien kopurua txikiagoa izan da aurreko urteko denboraldi berarekin alderatuta (–% 7,3, 134 lizentzia gutxiago eman dira). Beherakadarik handiena izan duen lurralde historikoa da, oinplano berriko eta birgaitzeko lizentziei dagokienez (–% 19,7 eta –% 5,6, hurrenez hurren).

2. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 2. hiruhilekoan metatutako urteko datuak


(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urte arteko aldakuntza absolutua eta portzentajea)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK		Metatua 2018ko 3. hiruhil. 2019ko 2. hiruhil.		Metatua 2017ko 3. hiruhil. 2018ko 2. hiruhil.		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	3.299	100,0	3.315	100,0	-16	-0,5
	Oinplano berria	437	13,2	502	15,1	-65	-12,9
	Birgaitzea	2.788	84,5	2.741	82,7	47	1,7
	Eraispena	74	2,2	72	2,2	2	2,8
Araba	Guztira	853	100,0	768	100,0	85	11,1
	Oinplano berria	134	15,7	132	17,2	2	1,5
	Birgaitzea	694	81,4	623	81,1	71	11,4
	Eraispena	25	2,9	13	1,7	12	92,3
Bizkaia	Guztira	1.707	100,0	1.841	100,0	-134	-7,3
	Oinplano berria	184	10,8	229	12,4	-45	-19,7
	Birgaitzea	1.496	87,6	1.585	86,1	-89	-5,6
	Eraispena	27	1,6	27	1,5	0	0,0
Gipuzkoa	Guztira	739	100,0	706	100,0	33	4,7
	Oinplano berria	119	16,1	141	20,0	-22	-15,6
	Birgaitzea	598	80,9	533	75,5	65	12,2
	Eraispena	22	3,0	32	4,5	-10	-31,3

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 2. hiruhilekoa

2. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. Urteko metatuaren datuak 2019ko 2. hiruhilekoan

(Balio absolutuak eta Ehunek bertikalak)




Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 2. hiruhilekoa

Araban, 85 lizentziako gorakadak urtetik urterako gorakada metatua ekarri du, % 11,1ekoa, alegia, obra-lizentzien guztizko kopuruan. Hala ere, alde txikiak ikusten dira lurralde horretan, emandako lizentzien kopuruaren bilakaeran, motaren arabera. Oinplano berriko lizentziak, urte arteko datuak hartuta, % 1,5 soilik igo dira; eta birgaitzeko lizentzien kopurua, berriz, neurri handiagoan handitu da (+% 11,4).

Gipuzkoan, bestalde, berreskuratu egin da emandako lizentzien kopurua (% 4,7). Obra-motaren arabera, birgaitzeko lizentzien kopuruak gora egin du urte arteko datuetan: % 12,2 (65 lizentzia gehiago); oinplano berriko lizentzien kopuruak, berriz, behera egin du: -% 15,6 (22 lizentzia gutxiago eman dira).

3. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopuaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. EAE. 1998-2019



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 2. hiruhilekoa



2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ERABILERA

2019ko bigarren hiruhilekoan, hobera egin du obra handiko lizentzien kopuruak, bai bizitegirako direnenak, bai bizitegirako ez direnenak, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta; hala ere, bi kasu horietan, datuak txarragoak izan dira aurreko urteko hiruhileko berekoak baino.

2019ko bigarren hiruhilekoan, obra handiko 858 lizentzia eman dira, oinplano berriko eraikinak egiteko edo lehendik zeuden eraikinak birgaitzeko. Lizentzia horietako gehienak (674, guztien % 78,6) **bizitegi-erabilerako** proiektuei lotu zitzaizkien, eta gainerako 184ak, guztien % 21,4, bizitegirako ez diren erabileretarako proiektuei¹.

2019ko bigarren hiruhilekoan **bizitegi-erabilerarako ez** diren obra-lizentziak dagokien sektorearen arabera aztertuz gero, ikusten da zerbitzuen sektoreko erabilerakoak nabarmendu direla (lizentzia guztien % 60,9). Industriaren eta energiaren sektorera beste % 29,9 bideratu da, eta gainerako % 9,2, berriz, lehen sektoreko jardueretara.

Lizentzien **hiruhilekoko bilakaerari** dagokionez, 2019ko lehen hiruhilekoaren eta bigarrenaren artean, ikusten da bizitegi-erabilerako proiektuekin lotutakoek eta bizitegi-erabilerakoak ez diren lizentziek gora egin dutela (+% 4 eta +% 6,4, hurrenez hurren).

Bizitegi-erabilerarako ez diren lizentziek 2019ko lehen hiruhilekoaren eta bigarrenaren artean izan duten gorakadak industria- eta energia-sektorearekin du lotura batez ere (+% 14,6), eta zerbitzu-sektorearekin (+% 16,7). Lehen sektorean, berriz, nabarmen gutxitu dira emandako lizentziak, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (–% 41,4).

2018ko bigarren hiruhilekoaren eta 2019koaren arteko **urteko** konparazioak datu negatiboak ematen ditu, bai bizitegi-erabilerarako lizentziei dagokienez (–%3), bai bizitegi-erabilerarako ez diren lizentziei dagokienez (–% 20,3).

¹ Txostenaren atal honetan egiten den azterketatik bazter geratzen dira eraisteko obra-lizentziak, ez direlako ezertarako erabiltzen obra egikaritu ondoren (geroago eraikinik egiten bada, horretarako beste lizentzia-eskari bat tramitatu beharko da). Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat da erabilera mistoko eraikinak bizitegi-erabilerako kategorian sartzen direla (bizitegirakoak eta bizitegirakoak ez direnak).

3. taula. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2019ko 2. hiruhilekoa


(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urte arteko aldakuntza absolutua eta portzentajezkoa)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	2019ko 2. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoarekiko		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko berarekiko	
	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
Guztira	858	100,0	37	4,5	-68	-7,3
Bizitegia	674	78,6	26	4,0	-21	-3,0
Bizitegiak bestelakoa	184	21,4	11	6,4	-47	-20,3
• Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	17	9,2	-12	-41,4	-12	-41,4
• Industria eta energia	55	29,9	7	14,6	-1	-1,8
• Zerbitzuak	112	60,9	16	16,7	-34	-23,3

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 2. hiruhilekoa

4. grafikoa. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2019ko 2. hiruhilekoa

(Balio absolutuak)



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 2. hiruhilekoa

2018ko eta 2019ko bigarren hiruhilekoen artean, bizitegirako ez diren lizentziak emateko barne-dinamikari dagokionez, atzerakadak izan dira jarduera-sektore guztietan. Beherakadarik handiena lehen sektoreak eta zerbitzu-sektoreak izan dute (–% 41,4 eta –% 23,3, hurrenez hurren), eta, hein txikiagoan, industriaren eta energiaren sektoreak (–% 1,8).

Urte arteko kopuru metatuetan, gora egin du bizitegi-erabilerarako lizentzien kopuruak; bizitegi-erabilerakoak ez direnen kopuruak, berriz, behera egin du jarduera-sektore guztietan.

2018ko bigarren hiruhilekora arteko urtetik urterako kopuru metatuak (2017ko hirugarren hiruhilekotik 2018ko bigarrenera artekoak) alderatzen baditugu 2019ko hiruhileko berari dagozkionez (2018ko hirugarren hiruhilekotik 2019ko bigarrenera artekoekin), bistakoa da bizitegi-erabilerarako emandako lizentzietan gorakada izan dela (+% 3,1), eta bizitegi-erabilerarako ez direnek behera egin dutela (–% 11,7).

4. taula. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2019ko 2. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urte arteko aldakuntza absolutua eta portzentajezkoa)


OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	Metatua 2018ko 3. hiruhil. 2019ko 2. hiruhil.		Metatua 2017ko 3. hiruhil. 2018ko 2. hiruhil.		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %
Guztira	3.225	100,0	3.243	100,0	-18	-0,6
Bizitegia	2.517	78,0	2.441	75,3	76	3,1
Bizitegiak bestelakoa	708	22,0	802	24,7	-94	-11,7
• Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	79	11,2	88	11,0	-9	-10,2
• Industria eta energia	200	28,2	231	28,8	-31	-13,4
• Zerbitzuak	429	60,6	483	60,2	-54	-11,2

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 2. hiruhilekoa

Bizitegi-erabilerarako ez diren obra-lizentziei dagokienez, 2019ko bigarren hiruhilekoko urteko datu metatuek erakusten dutenez, lizentzien kopuruak beheranzko bilakaera izan du jarduera-sektore guztietan. Industriaren eta energiaren sektoreak, zerbitzu-sektoreak eta lehen sektoreak antzeko beherakadak izan dituzte (hurrenez hurren, -% 13,4, -% 11,2 eta -% 10,2).

5. grafikoa.. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2019ko 2. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak)



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 2. hiruhilekoa



3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZAK, EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ARABERA

Etxebizitzak eraikitzeko aurreikuspenak behera egin du EAEn, aurreko hiruhilekoaren eta iazko hiruhileko beraren aldean.

2019ko bigarren hiruhilekoan bizitegi-erabilerarako emandako obra handiko 674 lizentziek 1.476 etxebizitzarekin zerikusia duten jarduketak dakartzate berekin (aurreko hiruhilekoan baino 607 gutxiago). Etxebizitza horietatik, 1.168 oinplano berriko jarduketekin daude lotuta (lizentzia guztien % 79,1); gainerako 308 jarduketak birgaitzeko prozesuan dauden etxebizitzak dira².

Zehaztu behar da atal honetan sartzen diren oinplano berriko etxebizitzaren bolumenak gorabehera handiak izan ditzakeela hiruhilekoan, sustapenen kopuruaren arabera. Hori gogoan hartuta, beherakada hauteman da 2019ko lehen hiruhilekoaren eta bigarrenaren artean, EAEn aurreikusitako oinplano berriko etxebizitzaren kopuruan (-% 32,4). 2018ko bigarren hiruhilekoko kopurua 2019ko hiruhileko bereko kopuruarekin alderatuz gero, ikusten da oinplano berriko etxebizitzaren aurreikuspena txikiagoa dela (% 6,8).

Bestalde, 2019ko bigarren hiruhilekoan birgaitzeko etxebizitzaren kopurua txikiagotu egin da, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-% 13,5), eta pixka bat hobetu da 2018ko hiruhileko berarekin alderatuta (+% 6,2).

Araban, jarduketa horiekin lotutako etxebizitzaren kopurua asko handitu da, eta Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, nabarmen txikitu da, aztertutako bi aldietan.

2019ko bigarren hiruhilekoan, **Bizkaia** da aurreikusitako jarduketa gehien dituen lurraldea; hain zuzen, 555 etxebizitza daude jarduketa horiei lotuta, eta % 74,1 oinplano berrikoak dira (441 etxebizitza). Lurralde horretan, nabarmen txikitu da oinplano berriko etxebizitzaren kopurua, bai aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-% 59), bai 2018ko hiruhileko berarekin alderatuta (-% 45,2). Birgaitu beharreko etxebizitzaren kopuruari dagokionez, behera egin du 2019ko lehen hiruhilekotik hona (-% 7,1), baita 2018ko bigarren hiruhilekotik hona ere (-% 7,1).

² Birgaitutako etxebizitzaren kontaketa ez dira kontuan hartzen etxebizitza bat baino gehiagoko etxebizitza-erakinak, zeinetan eraikineko elementu komunei soilik eragiten dieten birgaitze-obrak egiten diren. Ukitutako etxebizitza birgaituen kontaketa, honako esku-hartze hauek hartzen dira aintzat soil-soilik: familia bakarreko eraikin edo etxebizitzaren birgaitze integralak eta etxebizitza bat baino gehiagoko eraikin baten barruko bao bateko edo gehiagoko (etxebizitzak) birgaitzea (azken kasu horretan, kontuan hartzen da garatutako bereizte edo bat-egite prozesuetatik ateratzen den etxebizitza kopurua).

Gipuzkoan, berriz, 510 etxebizitzarekin lotutako jarduketak gauzatu dira 2019ko bigarren hiruhilekoan. Oinplano berriko 426 etxebizitza eraikitzea aurreikusten da, aurreko hiruhilekoan baino gutxiago (–% 28,2), eta 2018ko hiruhileko berean baino gutxiago (–% 9,7). Birgaitzeko jarduerari dagokionez, behera egin du birgaitzeko etxebizitzaren kopuruak, 2019ko lehen hiruhilekoaren eta oraingoaren artean garatutako jarduerari dagokionez (–% 33,3), eta apur bat handitu da aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta (+% 2,4).

Araban, azkenik, 411 etxebizitzaren inguruko jarduketak gauzatu dira. Gorakada handia gertatu da 2019ko lehen hiruhilekoaren eta bigarrenaren artean aurreikusitako etxebizitza kopuruari dagokionez (+% 99,5), eta horrek zerikusia du, bereziki, azken hiruhilekoan oinplano berriko jarduketek izan duten gorakadarekin (+% 152,7). Urtetik urterako bilakaerari dagokionez ere, gorakada handia hauteman da (+% 389,3). Bestalde, birgaitzeko jarduketei lotutako etxebizitzaren kopurua % 6,7 handitu da, 2019ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, eta are gehiago handitu da aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta (+% 50,9).


5. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 2. hiruhilekoa

(Hiruhilekoko balio absolutuak eta ehuneko bertikalak. Aldakuntza absolutua eta portzentajeak, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta)

AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA		2019ko 2. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoarekiko		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko berarekiko	
		Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	1.476	100,0	-607	-29,1	-67	-4,3
	Oinplano berria	1.168	79,1	-559	-32,4	-85	-6,8
	Birgaitzea	308	20,9	-48	-13,5	18	6,2
Araba	Guztira	411	100,0	205	99,5	327	389,3
	Oinplano berria	331	80,5	200	152,7	300	967,7
	Birgaitzea	80	19,5	5	6,7	27	50,9
Bizkaia	Guztira	555	100,0	-603	-52,1	-350	-38,7
	Oinplano berria	411	74,1	-592	-59,0	-339	-45,2
	Birgaitzea	144	25,9	-11	-7,1	-11	-7,1
Gipuzkoa	Guztira	510	100,0	-209	-29,1	-44	-7,9
	Oinplano berria	426	83,5	-167	-28,2	-46	-9,7
	Birgaitzea	84	16,5	-42	-33,3	2	2,4

6. grafikoa. Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 2. hiruhilekoa

(Balio absolutuak eta Ehuneko bertikalak)



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 2. hiruhilekoa



Urte arteko kopuru metatuak aztertuta, aipatzekoa da oinplano berriko eta birgaitzeko lizentzien kopuruak hobera egin duela EAEko hiru lurraldeetan.

Aurreikusitako etxebizitzaren hiruhilekoko kopuruak izandako gorabehera handiak kontuan hartuta, emaitzen **urteko dinamika metatua** aztertzea komeni da. Horrela jardunez gero, 2019ko bigarren hiruhilekora arte bizitegi-erabileran metatutako urteko jardueraren arabera, aurreikusita dauden jarduketek 6.730 etxebizitzari eragiten diote guztira. Horrek esan nahi du % 27,2ko gorakada egon dela (1.439 etxebizitza gehiago), 2018ko bigarren hiruhilekora arte metatutako urteko jarduerarekin alderatuta. Gorakada hori birgaitze-jarduketekin lotzen da, batik bat, eragindako etxebizitzaren kopurua % 29,8 handitu baita (294 etxebizitza gehiago), eta oinplano berriko jarduketekin, % 26,6ko gorakadarekin. Etxebizitza-mota horretan, 2018ko bigarren hiruhilekoari zegokion metatua aurreikusitako jarduketetan sartutako 4.303 etxebizitzetatik 5.448 etxebizitzara handitu da kopurua 2019ko aldi bererako.

6. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 2. hiruhilekoan metatutako urteko datuak


(Balio absolutuak eta ehunekoa. Urte arteko aldakuntza absolutua eta portzentajeak)

AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA		Metatua 2018ko 3. hiruhil. 2019ko 2. hiruhil.		Metatua 2017ko 3. hiruhil. 2018ko 2. hiruhil.		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	6.730	100,0	5.291	100,0	1.439	27,2
	Oinplano berria	5.448	81,0	4.303	81,3	1.145	26,6
	Birgaitzea	1.282	19,0	988	18,7	294	29,8
Araba	Guztira	1.107	100,0	759	100,0	348	45,8
	Oinplano berria	837	75,6	534	70,4	303	56,7
	Birgaitzea	270	24,4	225	29,6	45	20,0
Bizkaia	Guztira	3.677	100,0	2.827	100,0	850	30,1
	Oinplano berria	3.080	83,8	2.330	82,4	750	32,2
	Birgaitzea	597	16,2	497	17,6	100	20,1
Gipuzkoa	Guztira	1.946	100,0	1.705	100,0	241	14,1
	Oinplano berria	1.531	78,7	1.439	84,4	92	6,4
	Birgaitzea	415	21,3	266	15,6	149	56,0

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 2. hiruhilekoa

7. grafikoa. Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 2. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak eta Ehuneko bertikalak)



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2019ko 2. hiruhilekoa

Hiru lurralde historikoek izan dute bilakaera positiboa birgaitzearen arloan. Gipuzkoan, urteko kopuru metatuak gora egin du 2018ko bigarren hiruhilekoaren eta 2019koaren artean (+% 56), eta Bizkaian eta Araban, berriz, igoera apalagoa izan da (+% 20,1 eta +% 20, hurrenez hurren).

Lurraldeen arteko desberdintasunak nabarmenagoak dira etxebizitza berrietarako aurreikusitako jarduketetan. Kasu horretan, ikusten da Araban jarduera nabarmen hobetu dela (+% 56,7). Bizkaian, aurreikusitako etxebizitzaren urteko bolumen metatua % 32,2 handitu da (750 etxebizitza). Gipuzkoan, hobekuntza apalagoa izan da % 6,4ko hazkundera izan baitu.



4. ALDERDI METODOLOGIKOAK

Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistika zentsu-eragiketa bat da, eta bertako informazioa EAEko 251 udalek igortzen dute hilero. Informazio hori udalerrian emandako obra handiko lizentziei buruzkoa da, bai eta etxebizitza babestuak sustatze aldera udalak eskuratutako lurzoruari buruzkoa ere. Bestalde, udalak alokatzeko daukan etxebizitza-parkeari buruzko informazioa ere jasotzen da urtero.

Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistikaren helburu orokorra honako hau da: jakitea Euskal Autonomia Erkidegoan zenbat, zer eta non eraikitzen, birgaitzen eta eraisten den. Udalek emandako obra handiko lizentziak oinarri hartuta, obraren ezaugarri nagusiak (oin berria, birgaikuntza edo eraispena), eraikinaren erabilera eta eragindako etxebizitzak zein diren jakin nahi da.

Definizioak.

Obra handiko lizentzia. Obra handiko lizentzia obra handiak egiteko baimen bat da, tokian tokiko administrazio eskudunak ematen duena, oin berriko edozein eraikuntza mota egiteko edo eraikinak eraitsi edo birgaitzeko, horiek bizitegi-erabilerakoak izan zein ez. Baimenaren helburua da egiaztatzea lizentzia-eskaera bat datorrela hirigintza-araudiak xedatzen duenarekin.

Ondorio horietarako, honako hauek jotzen dira obra handitzat.

- a. **Oin berriko obra.** Eraikin berri bat eraikitzeko obra handia da, aldez aurretik beste eraikin bat osorik eraitsita edo eraitsi gabe. Eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.
- b. **Birgaitze-obra.** Aurrekoa ez bezala, ez da eraikin berririk eraikitzeko obra handia, baizik eta jada eraikita daudenetan egitekoa, aldez aurretik eraispen partzialak eginda edo egin gabe.

Obraren eraginpean dagoen eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.

Birgaitze-obra bat obra handitzat jotzeko, arkitekto edo pareko batek ikus-onetsitako proiektu tekniko bat egin beharko da. Proiektu tekniko hori nahitaezko baldintza gisa jaso beharko da lizentzia emateko aurkeztu behar den dokumentazioan, eta baldintza hori betetzen ez dutenak obra txikiko lizentziazat hartuko dira.



Obra horiek bi motatakoak izan daitezke.

- Handitzeko obra. Lehendik eraikitako azalera handitzen denean, egiturazko elementu berriak erantsita. Handitze hori bertikalean egin daiteke, lurzorua gainean hartutako azalera areagotu gabe (adibidez, beste solairu bat erantsita), edo horizontalean; azken kasu horretan, lurzoruan azalera gehiago hartzen da.
- Erreforma- eta/edo zaharberritze-obra. Eraikinaren azalera eraikia aldatu gabe, eraikinaren egiturazko elementuren bat aldatzen denean edo lehendik ez zegoen hornidura berriren bat ezartzen denean.

Atal honetan jasotako birgaitze-obra handiak hainbat arlotakoak izan daitezke. Ohikoenak hauek dira.

- Eraikinak handitzea horiek jasotzeko obra eginez edo azalera gehiago hartuz
- Igogailuak edo antzekoak jartzea.
- Fatxadaren eta/edo teilatuaren birgaitze osoa.
- Merkataritzako lokal bati bizitegi-erabilera ematea.
- Eraikinean egiturazko aldaketak egitea behar duten etxebizitzaren edo lokalen barne-egokitzapena.
- Etxebizitza bat edo batzuk banantzea edo batzea.
- Beren konplexutasunagatik edo ezaugarri teknikoengatik, edo duten garrantzi ekonomikoagatik, eskumeneko sailak obra handitzat jotzen dituen erreforma-obrak.

c. Eraispin-obra. Eraikin bat osoki edo partzialki eraistea da.



ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTATISTIKA 2019ko 2. hiruhilekoa

Emaizta nagusiak

AURKIBIDEA

1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	2
2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ERABILERA	7
3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZAK, EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ARABERA	10
4. ALDERDI METODOLOGIKOAK	14
TAULEN AURKIBIDEA	16
GRAFIKOEN AURKIBIDEA	16

TAULEN AURKIBIDEA

1. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 2. hiruhilekoa .	3
2. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 2. hiruhilekoan metatutako urteko datuak	5
3. taula. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2019ko 2. hiruhilekoa	8
4. taula. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2019ko 2. hiruhilekoan metatutako urteko datuak .	9
5. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 2. hiruhilekoa	11
6. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 2. hiruhilekoan metatutako urteko datuak	12

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 2. hiruhilekoa .	3
2. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. Urteko metatutako datuak 2019ko 2. hiruhilekoan	5
3. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. EAE. 1998-2019	6
4. grafikoa. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2019ko 2. hiruhilekoa	8
5. grafikoa. Obra handiko lizentziak, obraren helburuaren arabera. 2019ko 2. hiruhilekoan metatutako urteko datuak .	9
6. grafikoa. Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 2. hiruhilekoa	11
7. grafikoa. Aurreikusitako etxebizitzak, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2019ko 2. hiruhilekoan metatutako urteko datuak	13

Informazio gehiagorako:

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Berezia

Donostia kalea, 1, 01010 Gasteiz

Telefonoa: +34-945-01 69 61; Faxe: +34-945-01 98 56

Webgunea: www.euskadi.eus/etxebizitza-estatistikak

www.euskadi.eus/ingurumen-estatistikak

www.euskadi.eus/r41-ovse110x/eu/

Helbide elektronikoa: estadísticas-vivienda@euskadi.eus